



BBUP-REN ZUZENDARITZA TEKNIKOAREN EKIMENETAN JASOTAKO INDUSTRIA-INSTALAZIOAK EGIKARITZEKO ETA ZERBITZUAN JARTZEKO PROIEKTUARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA (2027-2029). ESPEDIENTE-ZK.: 3271

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Asier Sekunza Bengoetxea
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak/teknikoak: Telefono- zenbakia: 94.4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA	
1.- Kontratuaren xedea: Laguntza teknikoko taldea izatea, giza baliabideen eta materialen koadroa osatuko duena, gaur egun indarrean dagoen Inbertsio Planaren barruan zenbait lan egiteko, hain zuzen ere, gauzatutako industria-instalazioen proiektuekin, egikaritzearekin eta zerbitzuan jartzearekin zerikusia duten lanak egiteko.	
2.- Bete beharreko premiak Proiektuak, egikaritzeak eta, batez ere, industria-instalazioak zerbitzuan jartzeak eskatzen duten garrantzia dela-eta, laguntza tekniko arduratuko da Proiektu eta Obren Zuzendaritzak zehaztutako kontrol eta auditoria guztiak egiteaz, motorren kontrol-taulei, lan elektrikoari, automatizazioari, SCADA sistemei eta abarri buruzko proiektu-, egikaritze- eta zerbitzuan jartze-faseetan egindako lanak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeke, bai eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak zerbitzuan jartzeko baimena behar duten industria-instalazioak gainbegiratzeaz ere. Egingo diren lanen ezaugarriak kontuan hartuta, deskribatutakoa aurrera eramateko Zuzendaritza Teknikoak beharko dituen bitartekoak zehaztu dira, behar diren eraginkortasun teknikoko eta aurrekontu-zorroztasuneko baldintzetan.	
3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratu osoa zatitu gabe gauzatzeak laguntza teknikoari irtenbide orokorra emateko kudeaketa egokiagoa dakar; izan ere, kabineteko proiektuen eta lanen lanak ezagutzeak landa-lanak hobeto kudeatzea ekarriko du.	
4.- CPV: 71300000-1 Ingeniaritza-zerbitzuak.	
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua	



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA EURO (473.400,00 €), BEZik GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 946.800,00 € Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 169.51-601.32. - 2027. urtea: 236.700,00 € - 2028. urtea: 236.700,00 €	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez	
8.- Ordainketak kontura:	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Guztizko iraupena: HOGEITALAU (24) HILABETE.
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ; BI (2) luzapen, BAKOITZA URTE (1) BATEKOA.
4.- Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: (236.700,00 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Frogatzeko moduko esperientzia izan beharko dute industria-instalazioen diseinuan, ezarpenean, eraikuntzan, zerbitzuan jartzean, legeztatzean eta auditoretzan, bai eta beren jardura garatzeko beharrezkoak diren baliabideekin ere, kontratu honen xedeari dagokionez.

Kaudimen teknika egiaztatzeko, lizitatzailerik azken hiru (3) urteetan enpresa-mailan egindako lanen erreferentzien zerrenda aurkeztuko dute. Lan horiek agiri honetan lehiatzen direnekin lotura izan beharko dute, zenbatekoak, datak, erakunde kontratatzailea eta lanaren deskribapena zehaztuta.

Zerrenda hori 2023tik 2025era bitartean luzatuko da, biak barne, eta aurreko urteei dagokien informazioa baztertuko da.

Aipatutako aldian egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urtekoaren % 70 edo handiagoa izatea eskatuko da. Alderdi hori egiaztatzeko, urte anitzeko kontratuak modu uniformearen gauzatu direla ulertuko da kontratuak irauteen duen bitartean, kontrakoa berariaz egiaztatu ezean. Erreferentzia zehatz horietatik lanak ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira. Ziurtagiri horiek erakunde kontratatzaileak, dela pertsona publikoa, dela pertsona pribatua, egindako lanak zehatz-mehatz deskribatu behar dituzte.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1. Esleitutako talde teknikoaren osaera eta kide bakoitzaren kualifikazioa, kontratuaren xedera egokitzeak. Egin beharreko lanekin lotutako curriculum vitae erantsiko zaio talde teknikoko kide bakoitzari, adierazitakoa justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentu-probekin, kontratuari esleitutako langile teknikoak zeintzuk diren eta opor-egoeretak, baja-egoeretak eta abarretarako "erreserbatutako" langile teknikoek zer curriculum vitae-a dagokien adierazita. Egin beharreko lanekin zerikusia duten prestakuntza-ziurtagiriak sartuko dira, eta, positiboki baloratu ahal izateko, prestakuntza-ikastaroak berriki egin direla egiaztatu beharko da, baita ikastaroekin zerikusia duen lan-esperientzia eta lan horiek gauzatu direla egiaztatzen duen edozein dokumentu ere. Ezin izango da datu nominalik edo sexua adierazten duen daturik agertu. Bereziki baloratuko dira esleitutako talde teknikoaren esperientzia hauek:

- Instalazio elektrikoak eta kontrola diseinatzea eta gauzatzea.
- Instalazio elektrikoaren eta kontrol-instalazioen obra-zuzendaria.
- Ur-sektoreko industria-instalazioak abian jartzea eta legeztatzea.
- Industria-instalazioak abian jartzea eta legeztatzea.

Gutxienez, profil hauek dituen talde tekniko bat aurkeztu beharko da:

- Laguntza teknikoko arduraduna
- Goi-mailako ingeniari bat eta ingeniari tekniko bat.
- Hasieran esleitutako teknikarien oporraldiak eta bajak beteko dituzten espezialistak.
- Aurrekoak osa ditzakeen beste edozein profil, baldintza tekniko partikularren agirian (2. apartatua) deskribatutako lanei dagokienez enpresaren esperientzia, gaitasunak eta antolamendua frogatzeko balio duena.



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

2. Kontratuaren xede diren lanetarako identifikatuko diren antolamendua, metodologia eta faseei buruzko azalpen-memoria, kontratuaren ezagutza eta eman beharreko zerbitzuaren arazoa ulertzen dela egiaztatzen dutenak.

Lehen aipatutako dokumentu teknikoaren edukia zehatza izan behar da kontratuaren helbururako. Paperean eta formatu digitalean entregatu behar dira, eta gehienez 15 orrialdekoa izan behar du, eta ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehienezko orrialde kopurua zenbatzeko, aipatutako mugaren barruan zenbatuko da aurkibidea, eta ez dira kontuan hartuko azala eta kontrazala.

Aurreko zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko antzeko lanei eta esleitutako taldearen esperientziari buruzko erreferentziak (gauzatze-, ikastaro- eta prestakuntza-ziurtagiriak, esperientzia, CV eta abar) egiaztatzen dituzten agiriak, eta aparteko eranskin batean erantsi beharko da informazio hori.

Lehen zehaztutako baldintzak betetzen ez badira, zigortu egingo da eskaintzaren balorazioa, eta, beraz: ez da balorazioan kontuan hartuko (ez da irakurriko) ezarritako muga edo beste edozein muga (marjinak, letraren tamaina, etab.) betetzen ez dituen orrialde bakoitza.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

LAN-MOTA	KONTZEPTUA	PREZIO UNITARIOA
Kabinetea/Arloa	Goi-mailako ingeniariaren hilabeteak	
Kabinetea/Arloa	Ingeniari teknikoaren orduak	
Eremua	Ingeniari teknikoaren ordu gehigarriak (18-22)	
Eremua	Ingeniari teknikoaren gaueko edo jaiegunetako orduak (22-7)	

OHARRA: "Goi-mailako ingeniaria" delakoaren ordezkari, Ingeniaritzako Gradua gehi MECES 3 mailako masterra duen teknikaria ere izan daiteke. Era berean, "Ingeniari teknikoaren" ordezkari, MECES 2 mailako Ingeniaritzako Gradua duen teknikaria ere izan daiteke.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

b) Kontratuaren aurrekontua.

LAN-MOTA	KONTZEPTUA	NEURKETAK	PREZIO UNITARIOA	GUZTIRA
Kabinetea/Arloa	Goi-mailako ingeniariaren hilabeteak	24	10550,00	253.200,00 €
Kabinetea/Arloa	Ingeniari teknikoaren orduak	2600	60,00	156.000,00 €
Eremua	Ingeniari teknikoaren ordu gehigarriak (18-22)	600	75,00	45.000,00 €
Eremua	Ingeniari teknikoaren gaueko edo jaiegunetako orduak (22-7)	160	120,00	19.200,00 €
AURREKONTUA, GUZTIRA				473.400,00 €

1. OHARRA: Urteko neurketak gutxi gorabeherakoak dira, eta aldatu egin daitezke kontratuak irauten duen bitartean.

2. OHARRA: "Goi-mailako ingeniariaren" ordezt, Ingeniaritzako Gradua gehi MECES 3 mailako masterra duen teknikaria ere izan daiteke. Era berean, "Ingeniari teknikoaren" ordezt, MECES 2 mailako Ingeniaritzako Gradua duen teknikaria ere izan daiteke.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailereen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorcioideaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

B.1. Talde teknikoaren osaera eta kide bakoitzaren kualifikazioa baloratuko dira, kontratuaren xedera egokitzeko. Bereziki baloratuko dira esleitutako talde teknikoaren esperientzia hauek:

- Instalazio elektrikoak, kontrola eta komunikazioak diseinatzea eta gauzatzea.
- Instalazio elektrikoen, kontrolaren eta komunikazioen obra-zuzendaritza.
- Ur-sektoreko industria-instalazioak abian jartzea eta legeztatzea.
- Industria-instalazioak abian jartzea eta legeztatzea.

..... **35 puntu**

B.2. Kontratuaren xede diren lanetarako identifikatuko diren antolamendua, metodologia eta faseak baloratuko dira, baldin eta kontratuaren ezagutza eta eman beharreko zerbitzuaren problematika ulertzen direla egiaztatzen badute.

..... **15 puntu**

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztu badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Lantaldeak ekipamendurako ezinbesteko baliabide tekniko guztiak izango ditu, zehazki, kontratuaren baldintza tekniko berezien plegua betetzeko beharrezkoak diren hardwarea eta softwarea eskuragarri izan beharko dituzte.

Hasieran proposatutako taldeko edozein kideri baja emanaz gero, kontratistako arduradunak beste kide bat proposatuko dio BBUPko kontratuaren arduradunari, eta, nahitaez, giza langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak bete beharko ditu, ordeztan dutenen kaudimen berberarekin edo handiagoarekin.

Nolanahi ere, bai ordezkariak bai taldeak prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak kontratuaren harremanei eragiten dien guztian enpresa ordezkatzeko edo han jarduteko gaitasuna duen ordezkaria atxiki beharko dio laguntza honi.

Ordezkar horrek eta adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, lanekorik ezta bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean ezta kontratua bukatzean ere.